



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 22an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

- 1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 1ean buruturiko saioari dagokion akta.
- 2.- A.A.I., Sansinenea industriagunean lurrean botata zabor asko dagoela dio, herriaren irudi tamalgarria emanez, utzikeria handia baitago. Ingurua txukuntzea eskatzen du, edota Sansinenea industriaguneko kontserbazioaz arduratzen den G. Z.ri txukundu arazteko agintzea. Erabaki da jakinaraztea Sansinenea industriaguneko Kontserbazio Juntarekin aztertuko dela industriaguneko garbiketaren gaia.
- 3.- E.J.E.G. eta A.S., Trenbidearen Zortasun Akustiko Eremuetan eraikuntza berriak egiteko ingurumen alorreko betebeharren inguruko idatzia aurkezten du. Aurkeztutako idatziaren berri eman da.
- 4.- E.J.I., L.P. eta E.S., EAKko jarduera ekonomikoetarako lurzorua sortzeko eta merkataritza-ekipamenduak antolatzeko LAParen berrikuspen partzialari dagokion aldaketari buruzko idatzia aurkezten du. Aurkeztutako idatziaren berri eman da.
- 5.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko otsaileko hilabeteari dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea .
- 6.- J.A.L.ri, Uztapide plaza 4 1. eskubia etxebizitzako komuna eta sukaldea eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 7.- E.A.I., Zubimusu kalea 4 3D etxebizitzako komunean obrak egiteko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea ez dela baimenik emango lanen balorazio ekonomikoa udalean aurkeztu arte.
- 8.- S.A.E.ri, Larretxe zahar baserriaren kanpoaldean kamioien maniobrak errazteko esplanada txiki bat egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 9.- L.G.E., Gesalaga kalea 10eko irisgarritasun arazoari soluzio bezala, arranpa luzatzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea portaleko atearen kanpotik dagoen arrapala ezin dela luzatu, espazio publikoa hartzen duelako eta ez delako onargarria.
- 10.- L.S.L.k, Aizarnako Zabale baserria eraberritzeko eman zitzaion 2008 urtean eta orain obra zuzendaritzako izendapena aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea aurkezturiko



ZESTOAKO UDALA

dokumentazioa ontzat ematen dela eta gogorarazten zaio obra amaitzeko epea urtebetekoa dela.

11.- J.M.E.U., Endoiako Barrenso baserriak dituen bi eranskin eskrituratan agertzea ahalbidetzeko, udaleko teknikari baten ziurtagiria eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Endoiako Barrenso baserriak dituen bi eranskin eskrituratan agertzea ahalbideratzeko eskaturiko udal teknikariaren txostena bidali aurretik, J.M.E.U. jaunak bi eranskin hauek agertzen diren eskrituren zirriborroa aurkeztu behar duela Zestoako Udalean.

12.- R.N.k, kiroldegiko eraberritze lanen lehenengo eta bigarrenengo zertifikazioak aurkezten ditu eta berri eman da.

13.- A.I.L., bolada honetan Euskal Herria plaza 1 eta Gesalaga kalea 3 eraikinaren trasteroetako hodiedan uxok dabilizala dio, eta udalari galdetzen dio ea zerbait egin daitekeen. Erabaki da jakinaraztea Udala jakitun dela usoekin arazoa dagoela eta aukera ezberdinak aztertzen ari da irtenbide bat aurkitzeko helburuarekin.

14.- A.I.A., Gesalaga kalea 5 eraikineko bigarrenengo solairukoek ganbararen kanpoaldean usoentzako etxetxo bat jarri dutela eta arazoari irtenbidea bilatzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea arazoa jabe-kideen artean konpondu beharrekoa dela, toki pribatua izanik.

15.- F.R.S.ri, Foru plaza 2 eraikineko teilatuan konponketa lanak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

16.- G.A.Z.ri, Elizkalea 1 eraikinean, Elizkale aldera, teilatuko eta fatxadako konponketak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

17.- S.Z.U., Santa Engrazia bideko Aristain baserriaren obra bukaerako ziurtagiria aurkezten du, E.I.T.ea egiterako kontuan hartu beharreko data obrako data izan dadin. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa eta 50 urteko epe hasiera 2012ko apirilaren 12tik aurrera kontatzea.

18.- J.A.G., Aizarnako Herri Elkartearen izenean, Aizarnako Kultur Etxean wi-fi linea instalatzeko eskaera egiten dio Udalari. Erabaki da Kultura Batzordeari igortzea eskaera, bertan aztertu dezaten.

19.- E.P.G., San Juan ermitaren ondoko eskailerak konpontzeko eskaera egiten du. Horrekin batera aipatzen du ermitatik Herri Eskolara doan bidea arriskutsua dela eta bertan baranda bat jartzeko eskaera ere egiten du. Erabaki da jakinaraztea Udalak eskaerak aztertuko dituela.

20.- J.J.A.E., autobus geltokietan espaloi handiegiak daudela dio. Bera elbarritua dela eta moto elektrikoarekin ezin duela espaloi horietara igo dio; ondorioz, ezin du autobusez bidaiatu. Erabaki da jakinaraztea bilera egingo dutela udal arduradun eta teknikariek berarekin, Arroabeko autobus geltokian dituen irisgarritasun arazoei irtenbidea aurkitzeko.

21.- E.L.M., Zubimusu kaleko aparkalekuen inguruko kexa aurkezten du; kotxeek marra



horiaren gainean, zebra bide gainean... gaizki aparkatzen dutela dio eta kale horretako arazoari konponbidea ematea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Zubimusu 1 zk.aren aurrean, marra horia margoturik dagoen tokian, kautxoazko oztopoak jarriko direla autoek toki horretan aparkatu ez dezaten. Bestalde, Udaltzain zerbitzuari Zubimusu kalean jarraipen zorrotzagoa egiteko esango zaio.

22.- O.I.I., Ezenarro bidea 5ean tentsio baxuko energi linea berria ezartzeko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

23.- B.S.L., bere partzelari dagokion Xehetasun Azterketaren behin betiko onarpen eskaera. Erabaki du jakinaraztea egin beharreko tramitazioa egin ondoren, Udal Batzarrak berretsiko duela behin betiko onarpena.

24. MC.A. eta B.A., Herri eskola/San Juan inguruan dituzten lur sailetan dauden bideak konpontzeko eta txukuntzeko baimena eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea egin beharreko obren aurrekontua aurkeztu beharko dutela eta konpondu beharreko bidea plano batean markatu.

25.- G.EHNE., 2018ko martxoaren 21ean bi dokumentu aurkeztu zituen Zestoako Udalean: EITeak arautzen dituen Dekretu Proiektuaren alegazioak eta Udalei zuzenduriko idatzia. Honetan ondorengo eskatzen du: Dekretu berria indarrean sartu aurretik, baserriei EITa egitera ez derrigortzea eta EHNErekin bat egitea dekretu berrian baserriei salbuespenak ezartzeko lanketan. Erabaki da jakinaraztea Udalak bate egiten duela alegazioekin eta baserriei EIT-ea egitera salbuesteko Eusko Jaurlaritzaren aurrean egin behar diren tramitazioetan parte hartzeko prest dagoela Udala.

26.- I.A.I., ibilgailuen konponketarako duen jardueraz gain, kotxeen salmentarako jardura baimena lortzeko aurretiazko jakinarazpena aurkeztu du. Erabaki du lehendik baimendua duen Tailer Mekaniko jardueraz gain, kotxeen salmentarako jarduerari buruz aurkezturiko aurretiazko komunikazioa ontzat ematea.

27.- Itelazpik, Iraetako telekomunikazio zentroaren jardura sailkatuaren aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.

28.- B.S.L., Sansineneako pabiloiko jardura sailkatuan aritzeko aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.

29.- T.I.S.L.ri, Arroa Beheko Sansinenea Industrigunean "Piezen mekanizazioa"ren jardura legeztatzeke udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

30.- I.I.S.L.ri, Arroa Beheko Sansinenea Industrigunean "Galdaragintza"ren jardura legeztatzeke udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

31.- R.N.k, kiroldegiko ezker pareta konpontzeko aurrekontua aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.

32.- A.S.A., GI-631 errepidearen eta enpresara kamioiak joateko dagoen hormigoizko bidearen ondoko zuhaitza arriskutsu dagoela eta botatzeko baimena eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea aipaturiko zuhaitza kokaturik dagoen lursaila ez dela Zestoako Udalarena, beraz ez dagokio udalari zuhaitz hori kentzea.



ZESTOAKO UDALA

Batzorde informatiboen bileren akten onarpena

2018ko martxoaren 20an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Alkatetza ebazpenak.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 22 zk, Alonderoneko aldapako igogailu publikoaren obrarako obra zuzendaritza teknikoa S. F.ri esleituz.
- * 23 zk, Zesareo Diaz Enparantza kalea 3 eraikineko fatxadan obrak egiteko udal baimena.
- * 24 zk, I.E. etxez-etxeko langilearen kontratazioa %100ean oporrak ordezkatzeko.
- * 25 zk, B.T. etxez-etxeko langilearen kontratazioa %100ean oporrak ordezkatzeko.

Galdera eta erreguak

Azken orduko gaietan Mikel Arregik galdegin du, ea kiroldegiko obretan aurrekontuaren gehikuntzarik dagoen. Gorkak erantzun du, 2019an 150.000 euro gehiago aurreikusi beharko direla gimnasioko makineriarentzako. Hasierako oinarritzko proiektuan aurreikusi zirela baina gero, exekuziokoan ez zirela barneratu adierazi du.

Ondoren Mikelek Erein diru laguntza programan Ibañarrietako auzotarrentzako egoitza aurkeztu izanaz galdegin du, adieraziaz bere ustez Ibañarrietan oso jende gutxi bizi dela eta gainera auzotarren artean ere ez dagoela kontsentsurik gaiari buruz. Gorkak, erantzun du, gai hau baserri batzordean aztertu dela eta bestalde auzo bakarra dela auzotarrentzako egoitzarik ez duena, nahiz eta aitortu masa demografiko txikia dagoela.

Gorkak gaineratu du, hirigintza ikuspegitik lehenik Plan Berezi bat idatzi behar dela, auzoaren eremua lur ez-urbanizagarria delako. Bestalde diru laguntza eskatzeko baldintzetako bat, aurrekontuan partida bat sortua izatea dela adierazi du, eta kasu honetan ez dago, nahiz eta lantzen ari den 2018ko aurrekontuaren zirriborroan partida bat izan.

Azkenik, kokapenari dagokionean era arazoak daudela adierazi du Gorkak.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,